

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua

2020an bizikidetza, aniztasuna, giza eskubideen babesa eta memoria historikoa sustatzeko jarduera eta proiektuetarako dirulaguntzak emateko berariazko oinarri arautzaileak

2020ko otsailaren 28an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020an bizikidetza, aniztasuna, giza eskubideen babesa eta memoria historikoa sustatzeko jarduera eta proiektuetarako dirulaguntzak emateko deialdi publikoa eta hori arautzeko berariazko oinarriak.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 4.4 artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 2an

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendari
ESTITXU PEREDA SAGREDO

2020an bizikidetza, aniztasuna, giza eskubideen babesa eta memoria historikoa sustatzeko jarduera eta proiektuetarako dirulaguntzak emateko berariazko oinarri arautzaileak

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2019ko abenduaren 23ko ALHAOn — 147. zk. — argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke www.vitoria-gasteiz.org, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute honako hauen ingurukoak jakiteko: eskabideak aurkezteko modua eta epea; entitate eskatzaileen betebeharrak eta obligazioak; dirulaguntzak justifikatzeko modua; formularioak (eranskinak); tramitazioa; dokumentazioa aurkezteko bideak; instrukzioa eta ebazpena; ebazteko eta jakinarazteko epea; dirulaguntzaren publikitateak; azpikontratazioa; programaren aldakuntzak; beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna; arau-haustea eta zigorrak; interpretazioa eta aplikatzeko den araudia, eta abar.

Atarikoak

Gasteizko Udalak bizikidetzarekiko konpromisoa du, eta hiria pertsona guztiak elkartzeko gune izatearen aldeko apustua egin du, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean dioenari jarraituz hiria pertsona guztiak elkartzeko gunea izan dadin, inolako bereizketarik egin gabe. Horren haritik, 2015ean Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua sortu zuen Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Sailaren barruan, bizikidetzaren interesa eta lehentasuna sektoreko interesen gainetik dagoela nabarmentzeko.

Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuak giza eskubideak hartzen ditu oinarritzat bizikidetza sustatzeko, eta hori eraikitzeke bi zutabe ezartzen ditu: aniztasunaren kultura eta bakearen kultura. Hortik abiatuta, dirulaguntza deialdi honek hiriko kolektiboek bizikidetza eraikitzeke xedea duten proiektuak garatzen parte har dezaten sustatu nahi du.

1. Dirulaguntzen ildoak

Bizikidetzaren, aniztasunaren, giza eskubideen eta memoria historikoaren babesak sustatzeko jarduera eta proiektuak. 2020. urterako Gasteizko Udalaren dirulaguntzetarako deialdia arautzeko oinarri orokorretako 9. ildoarekin bat etorritik. Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren ekarpen bat ere sartu da, haren dirulaguntzen 5. ildoari dagokiona (garapenean laguntzeko ekimen eta proiektuei babesak).

2. Deialdiaren xedea

Bakearen kultura oinarritzat hartuta aniztasunean eta giza eskubideen babespean bizikidetza eta elkartasuna eraikitzeke xedea duten hiriko elkarteak sendotzea, Gasteizen bizikidetza sustatzen duten proiektuak finantzatzu.

3. Aurrekontu kreditua

Deialdi honen bitartez ematen diren dirulaguntzak udaleko Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuaren 2020ko aurrekontuetako 0181.2361.48901 (80.000,00 €-ko zuzkiduraduna) partidari jasotako kredituaren kontura joango dira; eta beste 15.000,00 euro, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren 0162 1150.2391 48200 partidaren kontura.

4. Entitate onuradunak

Pertsona juridikoek, fundazioek eta elkarteek jaso ahalko dituzte dirulaguntzak, baldin eta helbidea Gasteizen badute, legez eraberrita badaude, eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Erakundearen Erregistro Nagusian edo dagokion erregistro publikoan izena emanda badaude eskabideak aurkezteke epea bukatu aurretik. Gasteizko udalerria izan beharko dute jarduera-esparru eskabidea egiten duten elkarteek.

5. Diruz lagun daitezkeen proiektuak

Elkarte eta entitateek 2020an Gasteizko Bizikidetza eta Aniztasun Planaren helburu eta ekintzen ildotik egiten dituzten proiektuek jaso ahalko dute dirulaguntza. Proiektuek helburu hauek izango dituzte:

- a) Askotariko pertsonen artean komunitatea eraikitzea.
- b) Elkarreraginerako, komunikaziorako eta elkar ezagutzeko espazioak eta baliabideak sustatzea.
- c) Giza eskubideen alde jotzea.
- d) Gasteizen memoria historikoa berreskuratu, zabaldu eta ezagutzeko.
- e) Hirian bizi diren migratzaileen jatorriko herrialdeen inguruko ezagutza eta haiekiko elkartasuna sustatzea.

Alderdi hauek praktikan jartzen dituzten proiektuak lehenetsiko dira: lankidetzak, elkarrengandik ikastea, trukerako espazioak sortzea, proiektuen arteko elkarrekotasuna eta lankidetzak, gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea, bitartekaritza, ezberdinen arteko elkarriketa, bazterkeria egoeren prebentzioa eta salaketa, parte-hartzerako hiri eta gizarte espazioak sortzea, eta Gasteizen dagoen aniztasuna ikusaraztea.

Ez dira diruz lagunduko:

- a) Bizikidetza, aniztasuna, giza eskubideak eta memoria historikoa sustatzeko jarduerak egitea helburu nagusitzat ez duten proiektuak.

- b) Udalaren beste sail, zerbitzu edo erakunderen berariazko eskumenekoak diren proiektuak.
- c) Gasteizko udalerritik kanpo gauzatzekoak diren proiektuak.
- d) Animaliei eta naturari tratu txarrak ematea dakarten ekintzak bere baitan hartzen dituztenak.
- e) Eskabidea egiten duen entitateko bazkideentzat bakarrik diren proiektuak.

6. Laguntza emateko prozedura

Garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskabideak aztertu ondoren emango dira laguntzak, elkarren arteko lehiaren erregimenaren bidez, 2020rako Udalaren dirulaguntzetarako deialdia arautzeko oinarri orokorretako 7.1.1 artikuluari jarraituz.

7. Balioespen-irizpideak

Irizpen hauek hartuko dira kontuan aurkeztutako proiektua balioesteko:

A. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa. 15 puntu.

a) Entitatearen eskarmentu frogatua proiektua garatzeko den alorrean, eta lankidetzeta eta koordinazio esperientzia beste elkarte batzuekin edo Gasteizko Udalarekin. 10

b) Entitatearen ibilbidea, egonkortasuna, eta hirian dituen erroak. 5

B. Proiektuaren balioespen metodologiko eta ekonomikoa. 30 puntu.

a) Proiektuaren oinarriak, eta koherentzia definitutako helburuen, ekintzen, jardueren eta metodologiaren artean. 10

b) Aurrekontua proiektuaren neurrira egokitzea. Eraginkortasuna baliabide ekonomiko eta materialak eta giza baliabideak esleitzean. 10

c) Beste finantziazio-iturri batzuk izatea proiektuarentzat, dela beste erakunde batzuenak, dela baliabide pribatuak. 5

d) Proiektua ebaluatzeko sistema bat izatea. 5

C. Helburu sozialak. Proiektuaren kalitatea eta interesa bizikidetzaren, aniztasunaren, giza eskubideen eta memoria historikoaren ikuspegitik. 55 puntu.

a) Proiektuaren ekarpena bizikidetzaren, aniztasunaren, giza eskubideen, solidaritatearen eta memoria historikoaren ikuspegitik. 20

b) Proiektuaren interes soziala: hartzaile diren taldeak aldatzeko, sareak eta hedapen-materialak sortzeko, eta dauden ekimenak sendotzeko ahalmena. 10

c) Herritarren inplikazioa, proiektuaren faseetan. 10

d) Euskararen erabilera, proiektuaren garapenean. 5

e) Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten ekintzak garatzea. 5

f) Proiektuaren originaltasuna eta berrikuntza. 5

Dirulaguntza jaso ahal izateko, aurkeztutako proiektuek gutxienez 50 puntu lortu beharko dute.

8. Eskabideak balioetsi, bideratu eta ebazteko eskumena duten organoak

Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzuko bi teknikaririk osatuko dute eskabideak balioetsi eta dirulaguntzak nori eman proposatzeko eskumena duen organo kolegiatua. Batzorde horrek dirulaguntzak emateko proposamena aurkeztuko dio ebazteko eskumena duen organoari. Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzuak bideratuko ditu eskabideak. Ofizioz egingo ditu ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko

beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro. Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak izango du dirulaguntzak ematea ebazteko eskumena.

9. Konkurrentzia-erregimena eta laguntzak kalkulatzeko

Elkarteez proiektu bakarrerako eskatu ahalko dute dirulaguntza, beste batzuekin osatutako partzuergo bateko kide izan ezean, eta kasu horretan dirulaguntzaren eskatzailea ez bada. Proiektu bakoitzak gehienez 5.000 euroko dirulaguntza jaso ahalko du eta, horrenbestez, eskatzen den kopurua ezingo da hortik gorakoa izan.

Entitateek proiektua osorik finantzatzeko modua aurreikusi beharko dute, litekeena baita aurkeztutako aurrekontu osoarako dirulaguntzarik ez jasotzea.

Laguntza hauek emateko konkurrentzia-erregimena baliatuko da, hau da, dirulaguntzak emateko alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak, hartara lehentasun-hurrenkera ezartze aldera —aurreko artikuluan adierazitako irizpideen arabera— eta puntuaziorik handiena lortzen duten eskabideei emango zaizkie dirulaguntzak, inolaz ere deialdiaren berariazko oinarrietan finkatuko aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

Gutxieneko eta gehienezko zenbatekoa.

Kalkulatzeko garaian, gutxienez 50 puntu lortu duten eskabideak baino ez dira aintzat hartuko. Dena dela ere, gutxienez 1.000,00 euroko eta gehienez 5.000,00 euroko dirulaguntza ezartzen da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko formula.

50 puntu edo hortik gora lortzen dituzten proiektu guztiei, hasteko, 1.000,00 euroko zenbatekoa esleituko zaie. Aurrekontu osoari horren arabera esleitutako zenbateko osoa kenduko zaio. Aurrekontuaren gainerako zenbatekoa proiektu guztiek lortutako puntuen artean zatituko da —gutxienez lortu behar dituen 50 puntuak kenduta—, eta hori puntu bati dagokion balioa izango da.

Ondoren, balio hori proiektu bakoitzak lortutako puntuengatik biderkatuko da —ezinbesteko 50 puntuak kenduta—, eta horren arabera lortuko da bakoitzari esleitu beharreko zenbatekoa. Lortutako zenbatekoa proiekturako eskatutakoa baino handiagoa bada, soberako zenbatekoa kenduko zaio eta funts bat sortuko da, eta hori berriro banatuko.

Funts hori behar den guztietan banatuko da berriro, irizpide berari jarraituz, eta banaketatik bazter utzita eskatutako zenbatekoa dagoeneko lortu duten proiektuak.

10. Betebeharrak eta lankidetzak-konpromisoa

Oinarri hauek dirulaguntzen onuradunak honakoak bete beharko dituzte:

- a) Eskabidea eta oinarrietan eskatutako gainerako agiriak epe barruan aurkeztea.
- b) Emandako dirulaguntza onartzea. Hain zuzen ere, hamabost eguneko epean berariaz uko egiten ez badiote —eman zaiela jakinarazten zaien egunetik kontatuta—, onartu egiten dutela ulertuko da.
- c) Dirulaguntza zertarako eman zaien, hartarako baliatzea.
- d) Proiektua 2020an gauzatzea
- e) Diruz lagundutako proiektuaren publizitateari dagokionez, eta proiektuaren eta jardueren berri emateko erabili beharreko hizkuntzei dagokionez, 2020rako Udalaren dirulaguntzetarako deialdia arautzeko oinarri orokorretako 14. puntuan adierazitakoa bete beharko da.
- f) Nahitaezkoa izango da hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatzea diruz lagundutako proiektuarekin lotutako alderdi guztietan, bereziki publizitate eta komunikazio bitartekoetan. Gainera, sexuaren arabera bereizita —emakumezko eta gizonezkoak— aurkeztu beharko dira

datuak, bai proiektuan, bai justifikazioan, edo, elkarrekin datu horiek jaso badituzte, genero-identitatearen arabera bereizita —emakumezkoak, gizonezkoak eta bestelako identitateak—.

g) Nornahi iristeko moduko lokal edo espazioetan egin beharko dira proiektuak, dirulaguntza jasotzekotan, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean —1997ko abenduaren 24ko EHAA— adierazten den moduan, eta Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan —2000ko ekainaren 12ko EHAA— garatutako arau teknikoak betez.

h) Deialdian diruz lagundutako proiektu orok Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legean ezarritakoa bete beharko dute, bereziki 4.b) artikuluari dagokionez.

i) Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzuarekin lankidetzan jarduteko konpromisoa hartuko du bere gain programa honen baitan eskaria egiten duen entitate orok. Elkarrekin bilera batera joateko konpromisoa hartu beharko dute: egindako jardueren eta lortutako emaitzen berri emango dute, dirulaguntzen hurrengo deialdian egin daitezkeen hobekuntzak proposatuko, eta gerorako dituzten egitasmoak aurreratuko.

j) Diruz lagundutako proiektuaren jarraipena egite aldera, eskatutako agiri guztiak eman behar zaizkio Udalari.

k) Ezingo dute diruz lagundutako proiektuaren publizitaterik jarri Gasteizko Garbiketari eta Hondakinen Bilketa eta Garraioari buruzko Ordenantzak —2005eko abuztuaren 17an indarrean jarri zen— galarazitako leketan.

l) Lankidetzeta horren baitan, udal ekipamenduak edo espazioak erabili ahalko dira proiektuak garatzeko. Horrelakoetan, tasetan hobariak aplikatzea erabaki liteke, edo horiek ordaintzetik salbuestea, ekipamenduaren berariazko araudiak hori baimentzen badu. Kanpoan zerbitzurik kontratatu behar bada, ordea, elkarrekin ordaindu beharko ditu.

m) Diruz lagundutako proiektuen zabalkundea egin dezake Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzuak, “Elkarrekin bizitzen ikasi” eta “Gasteiz, hiri hezitzailea” programen barruan, edo zerbitzuak informazioa zabaltzeko dituen kanaletan (web-orrian, adibidez). Edozein kasutan, argi adieraziko du zein den jarduera bakoitza antolatzen duen entitatea.

11. Eskabideak eta agiriak

Dokumentazio hau aurkeztu beharko dute deialdi honetan parte hartu nahi duten elkarrekin:

a) Dirulaguntzak eskatzeko eskabide-eredu bakarra (eranskin orokorrak, webgunean)

b) Finantzatzeko eskatzen den proiektua (l. eranskina). Gehienez 12 orrialdeko luzera gomendatzen da (euskarriaren tamaina: A4 -21,00 x 29,70 zentimetro-, Times New Roman letra-mota erabilita, 12 tamainan, eta 1,5eko lerro-tartea utzita).

c) Eskabidea izenpetzen duenaren ordezkatzeko-ahalmena egiaztatzen duen agiria eta elkarrekin legezko-ordezkaria den pertsona fisikoaren nortasun agiriaren, AIZren edo pasaportearen fotokopia.

Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarria eskatu ahalko dio entitateari.

12. Aurrekontua onestea

Aurrekontua onesteko irizpide hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

a) Diruz lagundutako jarduera edo proiektuak garatzeko inolako zalantzarik gabe behar direnak joko dira dirulaguntza jaso dezaketenean gastutzat. Dirulaguntza jaso dezaketenean gastuek nahitaez 2020an eginak izan beharko dute, eta inolaz ere ezingo dira izan merkatuko balioetik gorakoak.

b) Ezingo da diruz lagundu daitekeen gastutzat jo BEZ kengarriaren zenbatekoa, baldin eta eskatzailea zerga horren aitortpena egitera behartuta badago.

c) Ezingo dira gastutzat sartu entitate eskatzaileen azpiegiturekin, inbertsio-gastuekin edo lokalak mantentzeko lanekin zerikusia dutenak.

d) Ezingo dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartu informatika-materiala edo ekipo teknikoak erostearen ondorio direnak.

e) Emandako laguntzaren ehuneko 10 onartuko da zeharkako gastu edo funtzionamendu -gastu gisa, eta hauek hartuko dira halakotzat: diruz lagundutako jarduerari zuzenean egotzi ezin zaizkion gastuak izan arren entitate onuradunak hura burutzeko ezinbestean egin beharreko gastu orokor eta administratiboak, esaterako, mantentze-gastuak (energia elektrikoa, telefonoa, gasa, ura eta abar).

Baldin eta entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan diruz lagundu ezin diren gastuak sartzen badira, ez dira zenbatuko ebazpen-proposamenean jasoko den dirulaguntzaren zenbatekoa ezartzeko.

f) Dirulaguntzaren helburua pertsona eskatzaileak garatu beharreko jarduerak finantzatzea bada eta ebazpen-proposamenaren arabera dirulaguntzaren zenbatekoa eskatutakoa baino txikiagoa bada, Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuak eskabidea birformulatzeko eskatu ahalko dio pertsona edo entitate onuradunari, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzara doitu ditzaten.

13. Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliiodunekoa izango da, oinarri hauen deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen denetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliiodunera arte luzatuko da epea.

Izapidetzea: oinarri orokorretako 4.3 puntuan adierazitakoaren arabera.

Agiriak aurkezteko bideak: oinarri orokorretako 5. puntuan adierazitakoaren arabera.

14. Informazioa eta aholkularitza

Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuak argibideak eta aholkularitza eskainiko dizkie deialdi honen baitan dirulaguntza eskatu nahi duten elkarteei.

945 161223 telefonora deituz edo bizikidetza.convivencia@vitoria-gasteiz.org helbidera idatziz egin ahalko dira kontsultak.

15. Dirulaguntza ordaintzea eta gastuak justifikatzea

Bi zatitan ordainduko dira dirulaguntzak:

a) Ehuneko 80, justifikatu aurretik, berariazko oinarrien 10.b atalean adierazitako epea igaro eta ukorik aurkeztu ez bada.

b) Gainerako ehuneko 20a jarduera bukatu eta gastuak justifikatu ondoren, oinarri hauetako 10. atalean ezarritako konpromisoak bete badira.

Dirulaguntzak justifikatzea: oinarri orokorretako 13. puntuan adierazitakoaren arabera. Justifikazioko kontua 2021eko urtarrilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko da.

Argibideak:

a) Faktura guztiek 2020ko data izan beharko dute eta dagokien banku egiaztagiriarekin aurkeztu behar dira, banku-transferentzia bidez ordaindu bada. 2-J eranskinean aurkeztutako hurrenkeran ordenatuta aurkeztu behar dira.

b) Dokumentazio eta eranskin guztiek originalak izan behar dute, eta entitate eskatzailearen izenpea eta zigilua izan.

c) Enpresaburu edo profesionalak entregatutako ondasunak edo emandako zerbitzuak faktura bidez egiaztatuko dira. PFEZren atxikipena egin behar bada, Foru Aldundian (edo dagokion erakunde) egindako atxikipen horren sarrera-egiaztatzea aurkeztu beharko da fakturarekin batera.

d) Elkartearekin lotura duten pertsonen ordainagiri, faktura eta nominak onartu egingo dira baldin eta Bizikidetzaren eta Aniztasun Zerbitzuak eskatutako unean "azpikontratatzeko baimen-eskaria" eranskina aurkeztu bada, eta zerbitzu horrek berariazko baimena eman badu.

e) BEZetik salbuetsita ez dagoen elkarte batek entregatutako ondasunak edo emandako zerbitzuak faktura bidez egiaztatuko dira.

f) BEZa eskatuz salbuetsita dagoen elkarte batek entregatutako ondasunak edo emandako zerbitzuak faktura bidez egiaztatuko dira; fakturan bertan berariaz adieraziko da hori, eta dagokion egiaztatzea aurkeztu beharko da.

Diruz lagundutako proiektua gauzaterik izan ez bada, hala jakinarazi beharko da, eta dena delako diru-kopurua Gasteizko Udalari itzuli. Ezingo da baliatu diru-kopuru hori diruz lagundutako jardueraren baitakoa ez den beste ezertarako, ezta hari zuzenean egotz ez dakizkiokeen gastuei aurre egiteko ere. Udaleko Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Sailaren kontu-korrontean sartu beharko da diru hori.

Honako kasu hauetan ez da dirulaguntzarik ordainduko: entitate onuradunak Udalak emandako dirulaguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu, edo entitateak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik.

16. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatea

Entitate onuradunek bere proiektuetako jarduerak partzialki edo osorik azpikontratatu ahal izango dituzte, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 16. eta 29.2. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Orobat, aipatutako 29. artikulua 7. puntuan xedatutakoaren ildotik, onuradunak berekin lotura duten pertsona edo entitateekin hitzartu ahalko du jarduera osoa edo zati bat gauzatea, baldin eta organo emaileak aurretiaz baimena ematen badu (azpikontratatzeko baimena eskatzeko eredu baliatuz) eta kontratazioa merkatu-baldintzen arabera egiten bada.

Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 eta 16. artikuluetan xedatutakoaren ildotik, Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten da diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeko eta eskatzailearekin lotura duten pertsona edo entitateekin gauzatzeko baimena emateko eskumena.

17. Errekurtsoak

Deialdi honen eta berariazko oinarrien kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazio-azietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, deialdia onetsi duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; horren esanbidezko nahiz presuntziosko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko administrazio-azietarako epaitegietan, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo ebazpena presuntzioskoa bada ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

18. Publizitatea

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Gasteizko Udalaren gardentasun atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak.



www.vitoria-gasteiz.org

Azpikontratzeko baimena eskatzea
 Solicitud de autorización para subcontratación

 Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzua
 Servicio para la Convivencia y la Diversidad

 Tfnoa - Tf: 945 16 26 23
 bizikidetzeta.convivencia@vitoria-gasteiz.org

ELKARTE ESKATZAILEA – ENTIDAD SOLICITANTE			
Elkartearen izena <i>Nombre o Razón Social</i>		NAN/AIZ/IFK <i>DNI/NIE/CIF</i>	
ESKATZAILEAREN ORDEZKARIA – REPRESENTANTE DE LA ENTIDAD			
1. abizena <i>Apellido 1</i>		2. abizena <i>Apellido 2</i>	
Izena <i>Nombre</i>		NAN/DNI	
Elkarrean duen kargua: <i>En calidad de</i>			
ESKATZEN DIO – SOLICITA			
Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, 29.7.d) artikuluan xedatutakoaren ildotik, baimena eman diezaiola ondoren adierazten diren hirugarrenekin edo berarekin lotura duten pertsona edo entita- teekin azpikontratzeko,		<i>al Departamento de Alcaldía y Relaciones Institucionales, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 29.7 d) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, que autorice la subcontratación con terceros, o con personas o entidades vinculadas cuyos datos a continuación se relacionan.</i>	
ZEINEKIN AZPIKONTRATZEKO BAIMENA ESKATZEN DEN, PERTSONA EDO ENTITATE HORREN DATUAK – DATOS DE LA/S PERSONAS O ENTIDADES PARA LA/S QUE SE SOLICITA AUTORIZACIÓN DE SUBCONTRATACIÓN			
Elkartearen/Pertsonaren izena <i>Nombre y Apellidos / Razón Social</i>		NAN/AIZ/IFK <i>DNI/NIE/CIF</i>	
ELKARTEAREKIKO LOTURA MOTA (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68.2 artikulua) – TIPO DE VINCULACIÓN CON LA ENTIDAD (art. 68.2 RD 887/2006, 21 de julio)			
AZPIKONTRATZEKO BAIMENA ESKATZEN DEN DIRU-KOPURUA – IMPORTE PARA EL QUE SE SOLICITA AUTORIZACIÓN DE SUBCONTRATACIÓN			
GUZTIRA, diruzlagundutako zenbatekoa: <i>TOTAL, importe subvención concedida:</i>			
GUZTIRA, diruzlagundutako jardueraren zenbatekoa: <i>TOTAL, importe de la actividad subcontratada:</i>			
Diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren gaineko EHUNEKOA: <i>PORCENTAJE que supone el importe subcontratado del total de importe concedido:</i>			
Pertsonak edota entitateak proiektuari eskainiko dizkion orduen kalkulua: <i>Estimación de horas que la persona/entidad subcontratada va a dedicar al proyecto:</i>			
AZPIKONTRATATUTAKO DIREN JARDUERAK EDO TA EGINKIZUNAK – ACTIVIDADES Y/O TAREAS SUBCONTRATADAS			
1			
2			
3			
Era berean, kontratazioa ohiko merkatu-baldintzen arabera egiteko KONPROMISOA HARTZEN DU bere gain.	<i>Asimismo, SE COMPROMETE a que la contratación se realice de acuerdo con las condiciones normales del mercado.</i>		
DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA			
Gasteizen, -(e)ko (a)ren (e)an	Vitoria-Gasteiz, a de de		

Izenpea eta elkarte eskatzailearen zigilua – Firma y sello de la entidad solicitante

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES	
Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dpo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrita
Finalidad del tratamiento	Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con los distintos servicios municipales, así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/2015
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa	Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBA/0ko 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.
Legitimación o base jurídica del tratamiento	Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: El interesado dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos
Hartzaleak	Datuak hiru garren bati komunikatu dakizkiote –soil-soilik Gasteizko Udalaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak beteatzeko eta datu pertsonalen jabeak baimena ematen duenean–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere.
Destinatarios	Los datos podrán ser cedidos a tercera entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.
Gordetzeko epea	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro prestatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen errekuzazioak egiteko edo horietatik babesteko aurrekustitako epeak iraun bitartean. Orotan, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutako aplikatuko zaie datuei
Plazo de conservación	Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación
Pertsonen eskubideak	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu
Derechos de las personas	Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos

ERANSKINAK

I. ERANSKINA - PROIEKTUAN JASO BEHAR DIREN ELEMENTUAK

1.- Proiektuaren izena eta erakundearen izena.

2.- Erakundea:

- Erakundearen ezaugarriak: Antzinasuna, helburuak, bazkide eta boluntarioen kopurua eta ezaugarriak (adina, sexua eta bestelako ezaugarriak)...
- Entitatearen ibilbidea: Sortu zenetik egin dituen jarduerarik garrantzitsuenen zerrenda laburra.
- Zer esperientzia duen antzeko proiektuak gauzaten.
- Zer esperientzia duen beste elkarte batzuekin lankidetzan eta koordinatuta lan egiten (sare, federazio, baterako ekimen eta abarretan parte hartzea).

3.- Proiektua:

- Proiektuaren deskribapen orokorra
- Helburuak
- Nori zuzentzen zaion
- Metodologia
- Egiteko diren ekintza eta jarduerak
- Egutegia
- Tokia
- Kolektiboen inplikazioa
- Herritarren inplikazioa
- Proiektuaren zabalkundea
- Proiektura bideratutako giza baliabideak
- Aurrekontua:
 - Gastuen zerrenda.
 - Diru-sarreraren zerrenda:
 - Zer dirulaguntza eskatzen den
 - Beste finantzaketa-iturri batzuk: jasotako, eskatutako edo aurreikusitako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk, diru-sarrera propioak eta abar.
- Proiektuaren ebaluazioa:
 - Adierazleak
 - Erremintak